

17. FITXA Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programarentzako laguntzak (CE IMPLEMENTA PROGRAMA), PRTR NGEU IDAE 21 esparruan

Norentzat: Energia-komunitate bat osatzen duten pertsona juridiko guztiak, publikoak zein pribatuak, legez eta behar bezala eratuak.

Sarbide-esteka: <https://www.idae.es>

Erreferentziazko araudia: [TED/1446/2021 Araua](#)

Eremuak: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.

Zenbatekoa: 10.000.000,00 € proiektu "txikietarako" eta 30.000.000,00 € proiektu "handietarako".

Aurkezteko epea:

2022/02/01etik

2022/03/01eko **12:00etara**

Laburpena

Energia-komunitateak sortzeko eta garatzeko interesa duten eragileei, nagusiki herritar, ETE eta **toki-erakundeei laguntzeko sistema** indartzea da helburua; horrela, deskarbonizazio justua eta inklusiboa lortzen lagunduko da, azpiegitura berdeetan inbertsioak sustatuz eta energia-sektorean tradizioz esku hartu ez duten eragileen parte hartzea bultzatuz.

Diruz lagun daitezkeen proiektu pilotu berezizat hartuko dira agindu honetan araututako laguntzen onuradun diren energia-komunitateek gauzatzen dituztenak, baldin eta energia-sektorean tradizioz parte hartu ez duten eragileen parte hartzea sustatzen badute eta bertako jarduera-lerroetako bat edo batzuk garatzen badituzte. **Proiektu "handi"** bakoitzeko **gutxieneko inbertsioa** 1.000.000 €-tik gorakoa izango da eta ezin izango du enpresako proiektu "handi" bakoitzeko 15 milioi euroko muga gainditi; **proiektu "txiki"** bakoitzeko **gehieneko inbertsioa** 1.000.000 €-koa izango da.

Programa honetan emango den laguntzak eskabide bakarreko muga du deialdi eta energia-komunitate bakoitzeko.

Jarduera-lerroak

Aplikazio-eremu geografikoa: Espainiako lurralde osoan.

Gutxienez arloan hauetako bat garatzen duten proiektu pilotu bereziak izango dira laguntzaren hautagaiak:

- Energia berriztagarri elektrikoak:** biomasa, biogasa edo beste gas berriztagarri batzuk, eolikoa, hidraulikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa.

- b) **Energia berriztagarri termikoak:** aerotermita, biomasa, biogasa, biometanoa zein beste gas berriztagarri batzuk, geotermita, hidrotermia eta eguzki-energia termikoa, bai eta iturri horiek aprobetxatzeko sistemak ere, deialdian zehaztutako aplikazioetarako.
- c) **Eraginkortasun energetikoa:** ingurutzaila termikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzea.
- d) **Mugikortasun jasangarria:** ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea eta ibilgailu elektriko "entxufagarriak" eta erregai-pila bidezkoak erostea mugikortasun partekaturako.
- e) **Eskariaren kudeaketa:** kontagailuaren atzeko biltegitratzea eta biltegitratze hidraulikoaren bidezko edo beste biltegitratze-sistema berritzaile batzuen bidezko erregulazio-sistemak, besteak beste, hurrengo belaunaldiko bateriak edota baterien aprobetxamendu berriak (baterien bigarren bizitza), energia termikoa gehitzea eta eskariaren araberako zerbitzu malguak.

Diruz lagun daitezkeen proiektu pilotuek hainbat jarduketa barne hartu ahal izango dituzte. Jarduketa horiek jarduera-arlo berekoak zein oinarri arautzaileen I. eranskinean zehazten diren arlo ezberdinetakoak izan daitezke.

Ikasketak bakarrik dituzten proiektuak ez dira hautagarriak izango.

DNSH printzipioa betetzea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak egiteko eta laguntzen xede diren jarduerak gauzatzeko epea **hamalau (14) hilabetekoa** izango da, laguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Diru-laguntza bidezko finantzazioa.

Eska daitekeen **laguntzaren gehieneko** intentsitatea honako hau izango da jarduera-arloaren arabera (betiere deialdiek ehuneko txikiagoak ezartzen ez badituzte):

Jarduera arloak	Laguntzaren intentsitatea, diruz lagun daitezkeen gastuen %
Energia berriztagarri elektrikoak	%60
Energia berriztagarri termikoak	%60
Eraginkortasun energetikoa	%30
Mugikortasun jasangarria	%40*
Eskariaren kudeaketa	Erlazionatutako jarduera arloari aplikatzen zaion laguntzaren gehieneko intentsitatea.

* %100era arte zero emisioko edo isuri txikiko errepideetako ibilgailuentzako sarbide publikoko karga- edo erregai-azpiegituretarako, deialdian zehazten denaren arabera eta 651/2014 Erregelamenduan 36. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Laguntzak **lehiakortasun-erregimenean** emango dira (itzuli beharrik gabeko diru-laguntza).

Laguntza hauek **bateragarriak izango dira** helburu bererako beste diru-laguntza batzueki,, betiere jarduketaren kostu bera finantzatzen ez bada, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada, eta baldintza hau betetzen bada: laguntzek, metatuta, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako mugak ez gainditzea, merkatuan ondasunak edota zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak diren edo jarduera ekonomikoren bat egiten duten azken hartzaileentzat.

Hala eskatzen duten onuradunek emandako laguntzaren zenbatekoaren **%80rainoko aurrerakinak** jaso ahal izango dituzte, IDAEn Zuzendaritza Nagusiari zuzendutako idazki baten bidez, betiere oinarrietan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badira.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Ingurumenaren babes-maila handitzea ahalbidetzen duten inbertsioak bakarrik hartuko dira diruz laguntzeko moduko jardueratzat.

- Eskabidea eta laguntza-jarduerak egin izanaren justifikazioa **kudeatzeko kostuak**, txostenak eta eskaera egiteko eta justifikatzeko eskatzen den gainerako dokumentazioa barne.
- Jarduketak egitearekin lotutako **proiektu tekniko**en lanketa.
- Diruz lagun daitezkeen proiektuen jarduketak gauzatzeko **lizitazioaren xede diren pleguak idaztearen** kostuak.
- Jarduketak egiteko **zuzendaritza fakultatiboaren** kostuak.
- Obraren **segurtasuna eta osasuna** koordinatzeko eta muntatzeko kostuak.
- **Obrak gauzatearen** kostuak, obra zibila edota instalazioen muntaia barne.
- **Ekipo eta material eta instalazio osagarrietan** egindako inbertsioa.
- Instalazio kontsumitzaileetako energia elektrikoa zein termikoa sortzeko, metatzeko edota eskatzeko **kudeaketa-sistemak, kontrol aktiboa eta monitorizazioa**.
- Energia-komunitatearen gobernantza edota administrazioa **kudeatzeko tresnak** garatzeko kostuak.
- Informazio eta publizitate-betebeharrak betetzeko **komunikazio** kostuak.
- **DNSH** printzipioaren betebeharrak betetzeko kostuak.

Gastu guztiak faktura eta ordainketa bidez jasandakoak izango dira, hornitzailearekin egindako kontratu edo eskaera baten bidez .

Ez dira diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartuko:

- **Laguntza-eskabidea erregistratu den dataren aurretik** fakturatu diren eta jarduketa gauzatearekin lotuta dauden kostuak, zein lehendik dauden kostu finkoak, hala nola erakunde onuraduneko langileekin lotutako kostuak.
- Administrazio-baimenak, lizentziak, abal edota fidantzen kostua, isunak, tasak edo zergak.
- Langileen, funtzionamenduaren edo gastu orokorren berezko gastuak.
- Baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan arren, artikuluko 5. atalean jasotzen ez diren kudeaketa, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako edozein gastu.
- Higiezinak edo lursailak erosi edo alokatzearen kostuak.
- Eskatzaileak izenpetutako aseguruak.
- Zaintza eta segurtasun gastuak, diruz lagun daitezkeen proiektuaren xede diren jarduketekin dagokien obra gauzatzeko bitartean.
- Energiaren ebakuazioa bideratzeko eskusiboak ez diren edota aipatutako artikuluko 5.g) idatzatiaz aipatzen ez diren beste linea elektriko batzuen egokitzapenak, birmoldaketak edo exekuzioak.
- Diruz lagunduko den proiektuaren xede den jarduketari dagokion instalaziora arteko errepide publikoetako eta bideetako sarbideak egokitzea.
- Finantza-kostuak.

Intereseko beste alderdi batzuk

Proiektuaren **jasangarritasun ekonomiko**a eta **enpleguan duen eragina** baloratu ahal izango dira. **Gizarte** eta **genero** eragina baloratu ahal izango da.